

## **Tenerifeko anemonak.**

Tenerifeko itsas hondoak, elikagaiz betetako atlantiar korronte aberatsek bainatuak, kokaleku bikain bat dira anemonentzat.

Animalia bakarti hauek, medusekin ahaidetuak, hexacoralario antozooen familiakoak dira, 800 espezie baino gehiago osatzen dute familia hau.

Substratuari finkoak, garroz osatutako koroa erakuzten dute, ezpezie batzuetan 100 garro baino gehiago dituzte. Ahoko diskoa, garro koroaren erdialdean kokatzen da.

Planktonaren osagaietatik elikatzen den zerianto honek, Elikagaia garroen muzilagoek biltzen dute eta zuzenean garraiatzen dute ahoko zulorantz. Zilioek mucilaginoso kapa bat sortzen dute, planktonarekin eta bultzatzean doaz ahoko plakarantz. Dixeritu ez diren hondarrak betileen mugimendu kontrako bitartez kanporatzen dira 24 eta 12 ordu bitartean irauten duen prozesu baten bitartez.

Arrain batzuk zeriantoaren anemonaren garroen artean aterpetzen dira hurbiltzen den harrapakinen baten zain Zarbo honen kasua da, geldi dagoen hondo itsastarraren haren hegats fusionatuek osatzen duten disko bentralari esker, krustazeo, molusku edo harren bat ager dadin itxaroten, ahoara eramateko.

Aldi honetan harrapakina agertu da.

Beste bizidun batzuk batzuk, krustazeoak gehienbat, izkirak txangurru txikiak, anemonek duten gaitasun erresumingarriez aprobetxatzen dira harraparietaz babesteko eta, honela, modu seguruagoan elikatzen dira.

Izkira kondorduna, anemonarekin erkidetua ageri da normalean eta bertan elikatzen da. Arriskua sentitzen duenean garroen artean ezkututzen da. Mehatxuaren aitzinean, buztana altxatzen du eta mugitu egiten da eta aldi berean bizkarraldea makotzen du konkorreraren gisa.

Anemonak nagusiki planktonarekin, molusku txiki eta krustazeoez elikatzen badira ere, batzuetan, gehiegi fidatzen diren auzokoak haren harrapakin bilakatzen dira. Gehiegi hurreratzeagaitik, zarbo hau nematozistoren pozoi paralizatzailearen biktima izan da. Behin Harrapatu ondoren, ez du alde egiteko aukerarik.

Harrapakina xurgatua izango da eta digestio aparatua barruan sartua, sustantzia muzilaginosoek lubrifikatu eta digestio entzimek elikagai gozo honen dixeriketa egiten dute. Orain anemonak lan asko du, baina merezi du, aldi bakar batean mantenugaien kopuru handi bat lortu duelako.